EUSKAL DISKO ETA LIBURUEN DURANGOKO 31. AZOKA

«Txillardegiren beste aldea, alderdi humanoa, ahalegindu naiz azaleratzen»

Joxean Agirre kazetariak hizkuntzalariari buruzko elkarrizketa liburua idatzi du

Joxean Agirre 'Egin' egunkariko kazetariak Jose Luis Alvarez Enparantza 'Txillardegiri' egindako elkarrizketa liburuak, 'Hitza hitz' izenburu duenak, Elkar argitaletxearen sail berri bat zabalduko du. Berea, «lagun modura» eta Txilardegiren alde humanoa azaleratu nahian egindako elkarrizketa dela dio Agirrek, edozein azterketa-lan sakonetik urrun.

Ramon Olasagasti / Donostia



Joxean Agirrek bi liburu izango ditu Durangon: *Hitza hitz* elkarrizketa liburua, eta *Elgeta* nobela.

CARLOS VILLAGRAN

JOXEAN Agirre kazetariak emango dio hasiera Elkar argitaletxeak elkarrizketa liburuekin zabaltzeko asmoa duen sail berriari. Badira beste bi liburu ere abian, Anjel Lertxundi idazleak Xabier Leteri egindako elkarrizketarekin osatua bata, eta Mikel Atxaga kazetariak Xabier Arzalluzekin egiteko asmoa duena bestea. Agirrek Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi* elkarrizketatu du, luze eta zabal mintzatu da hainbat alde eta beste hainbeste ertz dituen gizon honekin, eta hitz-aspertu horien emaitza da *Hitza hitz* liburua.

Liburuaren estiloa Agirrek argitu digu: «Ez da biografia bat. Elkarrizketa bat da, baina elkarrizketa mota hauek normalean adituek egindakoak dira, izugarrizko ezagutza eta jakituria behar baita horrelako pertsona baten barruan sartu eta gauzak aztertzen hasteko. Edozein nortasun leku gotorra da, eta sartzeko arma bakarrak dira jakituria edota miresmena eta maitasuna». Horrez gainera, jenero «izugarri zaila» dela ere argitu digu. «Ni ohituta nengoen elkarrizketa laburretara, eta ikasi dut hau guztiz bestelako kontua dela».

Txillardegiren bizitzak, dena dela, modu honetako liburu bat egiteko sobera ematen duela azaldu digu Agirrek, hizkuntzalari, intelektual konprometitu, ETAren sortzaile eta oso idazle estimatu den aldetik, bere belaunaldiarentzat erreferentzia izan delako. «Oso gaztetan sortu zitzaizkion Txillardegiri hiltzen ari zen hizkuntza honekiko grina, eta debekatuta dagoen aberri batean bizi den sentimendua, baina oso umetan gainera». Bi sentimendu horiek, hizkuntzaren eta politikaren arrotik eraman duten bi grina horiek izan dira Txillardegiren bizitzako ardatz, Agirreren arabera. «Gaztaroa, erbestea, ETAren sorrera, itzuli zenean sentitu zuen etorkizunik eza... bere bizitza epopeiatxo aberats bat da».

«Alabaina, Txillardegiren ibilbide politikoa baino gehiago —bere alde ezagunena hori dela iruditzen zait— beste alderdi humano hori ahalegindu naiz azaleratzen: maitasuna, bakardadea, zahartzaroa, heriotza eta horrelako sentimenduen inguruan zer pentsatzen duen». Alde horretatik liburu arina dela pentsatzen du Agirrek, erraz irakurtzen dena eta Txillardegiri buruz ideia bat hartzeko balio dezakeena. Osagarri edo, Txillardegiren lana errotik aztertuko duen adituen zeregin hori, hizkuntzalaritzako eta literaturako bere idatziak eta politikako bere ibilbidea ikertuko duen azterketa hori falta dela sumatzen du orain *Egin*-eko kazetariak. «Nirea adiskide modura egindako elkarrizketa da gehiago. Balio du, baina ez sakoneko azterketa horiek adina».

Liburua Txillardegiren bizitzako orokortasun batzuekin abiatzen da, eta ondoren kronologikoki dago egituratua, kronologikoki eta galdera-erantzun modura. Elkarrizketa luze bat da, azken batean.

Agirre eta Txillardegi hamar bat aldiz bildu ziren, aldiro pare bat ordu batez beste. «Hasieran nahikoa astuna iruditzen zitzaiola pentsatzen dut, baina azken aldera, materiala esku artean ikusten zuela, ilusio handiagorekin zegoen». Elkarrekin ondo pasatzen zutela ere jakinarazi digu Agirrek. «Uste dut elkarrizketaren jeneroan badagoela halako trantze puntu bat, konfiantza giro izugarri bat elkarrizketatzailearen eta elkarrizketatuaren artean, eta hori lortuz gero badirudi pertsona baten bizitzako klabe nagusiak eskuan dituela kazetariak eta argi bat ikusten duela pertsona hori nolakoa den jakiteko». Komunikazio puntu magiko hori, ordea, oso gutxitan lortzen dela uste du Agirrek.

Txillardegi: «Ahaztuta neuzkan kontuak gogorarazi dizkit»

ELKARRIZKETATZAILEAREKIN ezezik, elkarrizketatuarekin ere hitz egin nahi izan dugu. Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegik* liburuaren harian adierazi digunez, «badirudi mota honetako elkarrizketak irakurri egiten direla, jendeari gustatzen zaizkiola, eta niri ere iruditu zitzaidan izan zitekeela modu bat gauza batzuk esateko. Beraz, aurrera egin genuen».

Liburuari buruz «ikuspegi orekatua» du berak. «Joxean saiatu da nire nobelak-eta, literatur atala esan dezagun, erakusten, eta, egia esan, ahaztuta neuzkan kontu batzuk gogorarazi dizkit, nire liburuen problematika ezkutua eta abar. *Leturiaren egunkari ezkutua, Elsa Scheleen* eta beste liburu batzuk dexente aztertu ditu, eta alde horretatik pentsatzen dut liburua interesgarria gerta daitekeela».

Joxean Agirrek aurrez esandakoa nolabait onartuz, Txillardegik berak ere uste du jendeak gehiago ezagutzen duela bere hizkuntzalari aldea, edo bere ibilbide politikoa. «Normala da, senadore gisa ibili naiz, ETAn ere bai, HBko Mahai Nazionalekoa izan naiz... Orduan alde hori, beharbada, nahikoa ezaguna izango da jendearentzat. Beste aldea, berriz, literatur alde hori ez hainbeste, eta ona izan liteke hori agertzea».

Bere bizitzari buruzko kontuak aipatzea, ordea, errezelo gehiagorekin hartu zuela jakinarazi digu. «Joxeanek galdera asko egin zizkidan seme-alabei buruz, etxeari buruz, hau eta besteari buruz. Horren inguruko datu batzuk agertuko dira. Nik esaten nion, ez nekiela datu horiek zenbateraino izan zitezkeen jendearentzat interesgarriak, pribatu samarrak ere izan badirelako bestalde, baina tira, agertu, agertuko dira».

Biografia modu hauei buruz iritzi ona du Txillardegik. «Lehengo batean Joxe Azurmendik esan zidan beste hizkuntzetan, frantzesez adibidez, dexente argitaratzen direla horrelako elkarrizketak, jende ezagunaren inguruan halako liburuak idazteko joera hori badagoela, eta, gainera, arrakasta izaten dutela. Orduan, euskaraz egitea ere ondo iruditzen zait».

«'Elgetak' sortzen zidan miresmenari erantzun nahian idatzi nuen liburua»

R. O. / Donostia

JOXEAN AGIRREK, ordea, presentzia bikoitza izango du Durangon, iaz Irun Hiria saria irabazi zuen *Elgeta* nobela kalean baita. Kutxak argitaratu du, eta aurten lehen aldiz Kutxako liburuak present izango dira azoka preziatuan.

Elgeta liburuak goitizen bera zuen soinu jolearen historia kontatzen du, baina ez biografia modura, Agirrek berak gustuko duen modu literarioan baizik. «Elgetak bizitzari buruzko planteamendu batzuk egiten zituen niri interesgarri egiten zitzaizkidanak. Familia, etxea, dirua, aberria eta antzeko sinesmen eta oinarririk gabe posible al da bizitzea? Bizitzeko nahikoa al da kreatibitatea? Gogoeta hori zegoen liburuaren abiapuntuan. Bada Elgetak lortzen zuen, bizimodu osoa egin zuen bere artearekin. Uste dut denok bizi dugula tentazio hori, sormen bide horri eutsi eta bizitza osoa horren arabera egitekoa, baina ez gara ausartzen. Bera, ordea, ausartu zen, eta sortarazten zidan miresmen horri erantzun nahirik idatzi nuen liburua».

Elgeta babesetxe batetik baserri batera eraman zuten, baserrian gaizki konpondu zen aitaordekoarekin, handik Eibarrera jo zuen eta sozialistekin fedea galdu, gero gerra eta kartzela etorri ziren, eta kartzelaren ondoren baserriz baserri ibili beharra; azkenera, berriz, miserikordian lo eginez iritsi zen, artista asko bezala, Agirrek jakinarazi digunez. «Gure kulturari buruz dugun ikuspegi faltsu horren ondoan, ikusi nuen giro errural batean, baina Elgeta guztiz kosmopolita zela. Bera bizi zen nekazal giro hartan esaten zuen trikitixak egunen batean izango zuela bere lekua gizartean. 'Zuek egunen batean trikitilari karneta izango duzue', esaten zien Sakabiri-eta. Berak sinetsi zuen trikitixaren etorkizunean justu gainbehera zetorrenean, erromeriak behera eta jendea soinu handira pasatzen hasi zenean».

«Liburua berez maitasun istorio bat da, eta baditu gauza politak», azaldu digu Agirrek, «baina jendeak ez dezala pentsa bere bizitza denik, nire modura literatura bihurtutako bizitza baizik». Liburua Elgetaren entierrotik hasten da. Narratzailea argazkilari bat da, eta bien arteko adiskidetasuna bide, maitasun istorio bat kontatzen du. «Inportanteena, dena den, garaiko giroa, eta estetika dira. Trikitixak ez du gizarte hartan lekurik topatzen, ezta Elgetak berak ere. Emakumeekiko harremana ere halaxekoa zuen, ondorioz». ✗